

Gehiengo zabalak bat egin du itunpeko irakaskuntzako grebarekin

2008/11/12

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuok, sektoreko langileen lan baldintzak homologatzeko akordio berri baten negoziazioa eskatuz azaroaren 12an egin dugun grebak gehiengo zabalaren babesa jaso du. Sindikatuok bildu ditugun datuen arabera, %80ko babesa jaso du greba deialdiak.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetan 11.600 irakasle eta beste 600 langile zeuden deituta grebara.

Greba deialdia egin dugun sindikatuok ditugun datuen arabera, grebak %80 inguruko jarraipena izan du itunpeko ikastetxeetan. Eguerdian manifestazioa egin dugu Bilbon, Guggenheim paretik abiatuta, eta 6.000 bat lagun batu gara.

Sindikatuok Eusko Jaurlaritzak langileei dagozkien gaiak ikastolen eta ekimen sozialeko ikastetxeen patronalarekin baino ez dituela negoziatu salatu nahi dugu.

2008 eta 2009ko negoziazio kolektiborako lehentasunezko helburuak honako hauek dira: irakasle eta ez-irakasle den langileria %100ra homologatzea, %95-ko soldaten parekatzea gainditzea, irakasleen lan jardunaldia murriztea eta irakasle ez den eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko langileen soldata eta lan baldintzen homologazioa.

Gure esanetan une larrian dago sektorea. Horregatik azpimarratu nahi dugu, gauden egoeran, administrazioak eta patronalak erakusten dituzten jarrerak eta planteamenduak ere erantzun sendoa ematea eskatzen zutela eta hori garbi geratu da greba honekin.

